

## Kepa Enbeita, "¡Viva España!" eta heriotz-minak

*Deia*, 1978-08-24.

Areatza-Muxikan eta orain ehun urte, bere sendi artean gizon jaio zen; "Usparitxa-jauregi" baserriak, berezko zituen osagarriekin egin zuen euskaldun, eta berea zuen etorria eta abertzaletasuna bide zirela, Euskal Herriak egin zuen bertsolari.

Hil, ez zen Kepa Enbeitia berezkoak bakarrik botata hil.

Irakur itzazu Kepak guda ondoren egindako bertso hoiek:

"Ego aldetik etorri ziran

"Turmoi eta oñaztarriak

"kendu eutsezan areitz deunari

"ezkurak eta orriak.

"Baita ta amei be biotz-erdiko

"semetxu maitagarriak,

(bis)

"otsein eruan aloger barik

"zainduten gaztelerrria.

Hara gure heriotz-minak nondik datorzkigun oraindik.

### Erroak eta adarrak

Kepa, 1878go irailak 7 zituela jaio zen. Gurasoak: Juan Antonio Enbeita eta Maria Renteria, biak Muxika bertan jaioak. Bataiatu, orduko ohiturei zegokion bezala, urrengo egunean bertan Leon Miangolarra apaizak egin zuen.

Eskolatzean, Muxikan ere maixuak erdaraz, Kepak ez zekienean ezin jarrai, eta apaingarriztat eraztun bat jarri ziotenean behatzeko traba hura elizako teiltuaren gainera bota zuen. Maixuak eman zizkionak hartuta gero, ez zuen eskola hartara gehiago itzuli nahi izandu. Ez da harritzeko. Geroko zenbaki eta letrak, gutxi, hauzo-eskola batean erakusten zuen Sebastian Arrien apaizak eman ahal izan zizkion. Ez uste orduan gehiegi behar zirenik. Orduko eskolatzeak, aberatsen edo kanpotarrentzako sortutako buruausteak ziren. Honelaxe joan zaizkigu gure herriko arazoak gainbehera. Baina bereak ikasten ari zelarik ere lanean saio batzu egiten hasia zen noski Kepa, baserrikotan eta otargintzan. Bizkaiko minetan behar ziren otarretatik asko Muxikan egiten baiziran, eta hoietako batzu, "Usparitxa-Jauregi"n.

Ez zen hontan Kepa bakarrik aritzen.

Kepa-rekin batera, anai-arrebak: zaharrena, Antolin; gero, Kepa; eta urren: Frantziska, Manuel, Liandro (hiru ilabete zituela hila) eta Santiago.

Ahal zuten neurrian, behintzat.

Ezkondu, 25 urte zituela egin zen, 1903an, eta Mañasi Goiria Ibarrurirekin. Mañasik zortzi seme-alaba eman zizkion: Bizenta, Balendin, Miren, Edurne, Arantzazu, Imanol, Sabin, Itziar, Begoña-ko Miren eta, azkenik, hiru urte barru hilko zen Deunoro.

Danetara, zortzi.

Hoiek dira zuhaitz eder honen erroak eta adarrak.

## Bertsolaria

Lehenengo aldiz, Berriz-ko Onbe bertsolariarekin aurrez-aurre. Durangoko festetan: Kepak 19 urte.

Baina egitazko lehenengo izan zuen txapelketa, Ondarretan (Las Arenas) izan zen: beste giputz batzuen artean, "Txirrita". Honen entzuten handia zenez, eratzailleak oharterazi nahi izan zion aurretik nolako kontrarioa aurkituko zuen, eta Santi Onaindiak *Gure Urretxindorra*-n dion bezala.<sup>1</sup> Kepa-ren erantzuna: "Begira, nik beti nai ixan yoat neu baño geyago diranakaz neure indarrak neurtzea. Ikusi egingo yoagu".

Eta saria, Kepak irabazi.

Nondik zetorkion zuen etorri aberats hori?

Sortzaile bakoitzak bere bideak ditu, jakina. Denak dira ezkutuak. Bertsolari baten lanean, giroak du, noski, zerikusi handia; bestetik, bakoitzaren izakerak duen eragina.

Enbeita-ren kasuan, bietako exenplu bana:

Bingen Amezaga idazle eta poeta zen nere lagun minak ematen dit bat.<sup>2</sup>

Getxon 1935 Euskara Eguna gertatzen ari zela joan zen Bingen adiskide batzuekin Enbeita-ren laguntza eske. Honek bai ondo hartu. Baina gaixo zegoen.

Bingen-ek dionez, honako hau izan zen, bere ustetan, egin zuen azken agerpena. Gaixo eta guzi ere, agindu zien joango zela: Sabin eta Balendin bi semeek lagunduko zioten bertsotan, eta Kepa berak ere pare bat-edo botako zituela. Eta ez zen eztarriko gaixotasun hura bakarrik: nonbait –aitortu zien– abesteko bideak ixten ari zitzaizkion neurri berean hasi zitzaion etorria ere joaten. Orduan, Bingen-ek, eta hobe beharrez, zera esan zion: bertsoak aurretik buruz ikasita eman behar lituzkeala. "Ez!", esan zion. Buruz ikasitakoak oso zitzaizkion zail Kepa Enbeita-ri: bertako *giroa* behar zuen bertsotarako zuen etorria burutik ahora jexkiko bazen!

Constantino de Esla-k ematen du bestea.<sup>3</sup> Bergara inguruko herrixka batean bertsotan hastera zijoazela, euri-lanbroa, *sirimiria*. Saioa bikoia zen, eta besteak esan zion eguraldi harekin jaia han-bertan uztea hobe izango zela. Euri-lanbro honegatik ixildu! Eta han ekin omen zion Enbeitak bertsotan plaza betean aterki-azpian txaloka jarri zirenei: aldaretan beti ikusi izandu zituela lainoak, baita santuen oinetan ere, eta lainuen gainean, Jaun Goikoa: hautatutako herriei euria bialtzen diona. Zer izango zen, ba, Euzkadi euririk gabe?... Lur legor puska bat besterik ez... Euriak biltzen eta lurtean pixka bat hondoratzen gaitu euskaldunak, eta ulertzen ez gaituztenak, gure sentimenduak uler nahi ez dituztenean... Eta euriak lurra busti-blaituaz gure hilen ezurrei mun egiteko bide

<sup>1</sup> Ekin, Buenos Aires, 1974.

<sup>2</sup> *El hombre vasco*, Ekin, Buenos Aires (64).

<sup>3</sup> *Estampas vascas*, Ekin (17), Buenos Aires.

bila dijoazela... hasi zenean, euripean zegoen jendea negarrez eta "gora Enbeita!"-ka hasi zen.

Gure herriak hitz-bide hau ulertzen zuen. Eta oraindikan, euskalduna den herriak ulertzen du.

Noski, hau ez da "vasco" batzuen senti bidea.

### "¡Viva España!"

Oinatiko jai batean gertatu zen: bertsoan hasi aurretik herriaren txaloak entzuten ari zela, probokatzaile batek "*¡Viva España!*" gogor bat bota zuen.

Eta Enbeitak berealako etorrian:

"*¡Viva España!*" didarka dagoz,

"neuk bere *viva!* dirautzat,

"gorrotorikan eztagolako

"nigandik España-rentzat.

"Katolikuok jakin dagigun

"zer diñon goiko juezak:

"Besten gauzari bakian itxi,

"zaindu beria bakotizat".

"Augaitik, *viva!* diñot berriz be,

"ixan bei Españarrentzat;

"baita be diñot:

"Gora Euzkadi!",

"geuria da-ta, guretzat!

Intoleranteentzat ikasbide egokia.

Eta Enbeita-ren doaiak neurtzeko gertaldi hoberik, ezin.

### Lugones-en poema

Leopoldo Lugones (1874-1938) Argentinako poetarik handienetako bat da.

Kepa Enbeita-ren omenez han bizi ziren euskaldunek eratu zituztenen berri izan zuenean oso ezaguna den "Canto a Enbeita" idatzi zuen. Geroztik, Lugones-i Aguilar argitaletxeak egin dion Bilduman ere agertu da, eta, hala, Enbeita dela-ta, Euzkadi-ren arazo politikoa zabaltzeko hospe eta indar handiko bidea izan da.

Hara hemen Oda luze honen lehenengo eta azken zatiak:

Salutación a Enbeita

"Saludo al bardo libre Pedro de Enbeita el vasco,

"En la raza que él canta bajo el frontal peñasco

"Con que el cielo apuntala su Pirineo agreste,

"Grave, arduo, inconquistable, claro, audaz, fiel, celeste

"De elevación él mismo, como si, héroe y monte,

"Le abriera a Euzkadi el cénit por supremo horizonte,

"Conforme, antes que al cebo domesticarse entecos,  
 "Su páramo prefieren águilas y rebecos.

Eta bukaera:

"Lo saludo en la patria que toda gloria explica.  
 "Lo saludo en el vástago del Arbol de Guernica.  
 "Lo saludo en el Fuero de la honra y la equidad.  
 "¡Pedro de Enbeita el vasco! ¡viva la libertad!

Honi, Kepa Enbeitak beste bat idatzi zion.

Hara hasiera eta bukaera nolakoak dituen...

Eskarrikasko  
 "Eguna astean, lotsaturik or,  
 "Eskutaurik gau illuna...  
 "Izadi oro barrezka dago,  
 "Dana da edertasuna.  
 "Ortzea garden, euzkia diz-diz,  
 "Ipar aixetxu biguna  
 "Txindorrak<sup>4</sup> pozik abestuteko  
 "Berebiziko eguna!

Eta bukaera:

"Biotz auxe zuk egimen-loraz  
 "jantzirik daustazu jarri;  
 "Biotz auxe dopaltzut barriz  
 "Lora ta guzti zerorri,  
 "Artauidazu, ba, begikotasun  
 "Ta maitasun ezaugarri,  
 "Besarkaturik bizi gaitezán  
 "Argentina ta Euzkadi.

## Guda eta heriotza

Gudak, Arabako Laguardian harrapatu zuen.

Jasan behar izandu zuen gaitzak lur legorra eskatzen zuen eta hara joaten zen urtero. Ezin izandu zuen etxerako biderik egin gure herriko guda amaitu zen arte. Ordukoak dira idatzi zituen bertso hoiak:

"Maite zaitudan jayotetxeoi,  
 "Zugandik urbil bizi naz!

...

"Ezin ikusi, ezin laztandu!  
 "Tamalez ilgo ete naz?

Azkenean etxeratu zenean, semeak falta zitzaizkion: batzu, espetxean; besteak oraindik Espainian jarraitzen zuen guda bizian.

Gure herrian, guda izil-pozoitugaiztoa.

---

<sup>4</sup> Urretxindorra izatetik, txindorra izatera apaltzen da.

Gimon sendagilea ikustera eramán zuten Bilbora, eta honek oharterazi zituen senideak, oso gaixo eta gutxirako zegoela. Etxeratu zuten, eta herri guzia joan zitzaion batean edo bestean agur egitera. Agustín Isusi apaiza eta adiskideak elizakoak emanda hil zen, 1942go abenduaren 12an.

Aurretik lagun bati esana:

"Gauza andijak ikusteko biarrian ekin dautsagu; baña orain ni ba-noa zerura, zuek biar bada, ikusiko dozuez".

"Ego aldetik etorri ziran"... turmoi haiek berrogei urte iraun dute. Ba dirudi, hala ere, oraindik ez dela Euzkadi bere burjabetzaren bidean abiatu besterik egin. Eta bide hau azkar ibiliko badugu, behar genduke Kepa Enbeita berak esandako hitza entzun:

"Bizkaya, Araba, Gipuzko, Naparr,

"Zubero eta Lapurdi,

"sei seme dira ama batenak

"ama ori da Euzkadi.

"Gorroto andiz etsai deungeak

"ezarri euskun buztarri,

(bis)

"kendu daigun, anai guztiok,

"lagun egiñik alkarri.

Ehun urte Kepa Enbeita, Euzkadiko "Urretxindorra", "Usparitxa-Jauregi"n jaio zela. Ba dira 36 urte luze haren gorputza hobiratua izan zela. Baina haren bertsoak eta bertso hoiekin gureganaino etorri den herri arnasa bizirik daude gure artean.

Jaso besterik ez dugu.